

Ermuko infantilek hirugarren postua eskuratu dute Euskadiko kros txapelketan

Amaia García, Gladia Afonso, Iraia Bengoetxea eta Maider Mochales ermuarrak ezin hobeto dabiltza krolean: hirugarren postuan geratu dira Laudion burutu den Euskadiko eskola-kros txapelketan. Bertan jardun ahal izateko, beste 4 probatan egin behar izan dute korrika aurretik; horiei esker, Bizkaiko txapeldunordeak ere izan dira.

2000. urtean jaiotakoak dira laurak eta talde indartsua osatzen dute, lesionatuta egon diren Olatz Yarza eta Ane Garridorekin batera. Triano, Usansolo, Muskiz eta Ermuan burututako Bizkaiko txapelketetan puntuak lortu zituzten gazte horiek eta, horri esker, gogotsu heldu ziren Euskadiko neurketara.

Euskal Herri osoko 59 gaztek hartu zuten parte lasterketa horretan eta hauek dira ermuarrek lortutako emaitzak: Amaia García, 17. postua (12.51); Iraia Bengoetxea, 23. postua (13.17); Maider Mochales, 24. postuan (13.18) eta Gladia Afonso 47. postua (14.15). Guztien markei esker, 3. geratu ziren sailkapen orokorrean. Kimuen mailako neskak ere, hau da alebinak, Bizkaiko txapeldunordeak izan ziren.

Euren entrenatzailea den Lolo García nabarmentzen duenez, "gazte hauek meritu berezia dute. Izan ere,

kontuan hartu behar da Anaitasuna Ikastolako eskola-kiroletik sortutako taldeak direla eta 50.000 biztanle dituzten herrietako kirolkluben aurka lehiatzen direla. Hots, eskola-kirola, kiroltaldeen aurka".

Egun, 70 ikasle koordinatzen ditu Lolok, Alberto Perniaren laguntzarekin, oinarri-kirola deritzanaren barruan. Bere ustez, zaila da umeak -batez ere mutilak-



Ezkerretik hasita: Amaia García, Gladia Afonso, Iraia Bengoetxea eta Maider Mochales kirolariak.

futboletik aldentzea, "gurasoek seme-futbolaria nahi dutelako. Gainera, penagarria da atletismoan primeran ibil zitekeen gaztetxoak futbolaz gainerako kirolik kontuan ez izatea".

*Aldizkariako azalean, zutik, ezkerretik eskumara: Olatz Yarza, Gladia Afonso eta Zailoa Pérez. Makurtuta, berriz, Iraia Bengoetxea eta Julene Bouzo.

Dorleta Vidal

Moreno eta Gorritxategi bikain aritu dira jabalina jaurtiketan Kirolari federatuen artean, Arantza Morenoren eta Leire Gorritxategiren markak aipatu behar dira. Martxoaren hasieran, Jaurtiketa Luzeen Txapelketan parte hartu zuen



Arantzak, Leonen. 18 urte dituen arren, kategoria absolutuan jardun zuen eta 3. postua lortu ere. Horri esker, AEBtan egingo den Munduko Junior Txapelketarako sailkapena erdietsi du.

Bestalde, Leire Gorritxategi hautatu dute Europako Jubeniletako sailkapenetan aritzeko, maiatzaren 30ean, Azerbayanan. Marka ona lortuz gero, Nanjing (Txinan) ospatuko diren Jubenilen II. Olinpiar Jokoetan parte hartuko luke.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabalitzen dugu